

Funtsezko jarduerak:

Aplikazioaren funtzionamendu egokia bermatzeko, hainbat jarduera nagusi garatu behar dira. Jarduera garrantzitsuenetako bat aplikazioa garatzea eta etengabe eguneratzea da, erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta eta akats teknikoak konponduz. Horrez gain, aplikazioaren erabilera erraza eta segurua izatea bermatu behar da, erabiltzaileek esperientzia positiboa izan dezaten.

Beste jarduera funtsezko bat kultura-ekintzei buruzko informazioa bildu, antolatu eta eguneratzea da. Horretarako, udal, kultur etxe eta ekitaldi-antolatzaileekin harreman etengabea da. Era berean, marketin eta komunikazio jarduerak ere oso garrantzitsuak dira, aplikazioa ezagutarazteko eta erabiltzaile berriak erakartzeko. Azkenik, erreserba-sistemaren kudeaketa eta bezeroarentzako arreta eguneroko lanaren parte dira.

Enpresaren kudeaketa funtzioei dagokienez (giza baliabideen kudeaketa, kontabilitatea, administrazio-betebeharrak, etab.), guk arduratuko gara eguneroko kudeaketaz. Hala ere, beharrezkoa denean, kanpoko finantza aholkularitza erabiliko da kontabilitate eta zerga-arloetako kudeaketarako.



